egiten zuten euskaraz gehienbat. Durangon bizpahiru familia seinalatuk, eta kitto. Gerora jakin dut nik hainbat eta hainbat ezagun eta bezero euskaldunak zirela.

### **Zu gerraosteko Durango horretan jaio zinen.**

Eta San Franciscora joaten nintzen eskolara. Zer zen hurla!... Mojek esaten zikigutena etxearen kontatu eta sarritan gurasoek zuzentzen zikiguten: "Ez, hori ez zen horrela izan honela baizik". Beldurra, pekauta, eliza barru-barruraino sartuta...

### **Hala ere, zuek etxearen bazenuten euskaldun izatearen kontzientzia, ezta?**

Bai. San Franciscon ere, hamabi bat urterekin talde txo bat egin genuen eta erabaki genuen jolastorduan euskeraz egingo genuela geure artean. Debekatu egin ziguten. Gero, hasi ginen gure idazlanak-eta, gorri eta berde kolorez marrazten zuriaren gainean, halako xe txikikeria. Eta hala ere, gogoan dut zelan esan zidan moja batek: "¡Qué pena, Maritero!... Haces unas redacciones muy buenas pero esos dibujitos que pones ahí..."

Durango oso itxia eta tristeza zen garai hartan jakintza eta kultura aldetik ere. Eskerrak gurean bestelako jarrera zegoen gurasoan aldetik. Kanpoan, ezer egitekotan, elizaren inguruan egin behar zen derrigor.



1 Victorio Agirre eta Lorea eta Arantza alabak drogerian.

2 60. hamarkadan Urbian Maite lagunekin.

### **Scout taldeko arduraduna izan zinen.**

Acción Católica zegoen, eta inguran orbitatzen Scout taldea eta holakoak. Nik scout talde baten ardura hartu nuen. Besteek ez bezala, euskaraz egiten genuen gure taldean eta martxa polita lortu genuen: mendi irteerak, udako egonaldiak... Orduan ez zegoen gaurko bitartekorik baina moldatzen ginen garaio publikoz, autoestopez, edo behar zen moduan lekuetara iristeko.



### **Iurreta abadetxera ere bai.**

Bai. Sasoi hartan Julen Kaltzada zegoen lurretan abade eta abadetxea zabalik egon ohi zen jende guztiarentzat. Scout taldearentzat lokaltxo bat lortu genuen baina, jakina, han bestelako jendearekin ere egin nuen topo. Herri Gaztediko jendea ibiltzen zen handik, militante klandestinoak... Denetarik. Neu ere hasi nintzen saltsan sartzen. Ohartu nintzen garai hartan bazegoela diktarurari beste modu batean erantzuteko aukera, baina nire burua ez nuen indarra erabilten ikusten. Multikopistarekin, propaganda zabaltzen eta holako zereginetan sartu nintzen.

### **Jendea erregimenaren aurka itzartzen hasia zen, beraz.**

Bai. Eta gero, 1968an izan zen Txabi Etxebarrietaren heriotzarena. Zerbait egin behar zela eta meza egitea eskatu genuen, bai baikenekien meza ostean



**"Sekulako jende piloa atxilotu zuten orduan. Pentsa, Indautxura eroan eta hainbeste jende zegoen ze, etxera itzuli eta biharamunean Durangoko koartelean aurkezteko esan zidaten"**

berez-berez etorriko zela protesta. Durangoko guardia zibilen tenientea dendara agertu zen aitarekin hitz egitera, Etxebarrietaren aldeko meza nik eskatu nuela-eta. Eguna iritsi zenean mezatara ez joatea erabaki nuen, banekielako gai-nean izango nituela.

#### **1969ko otsailean atxilotu zintuzten.**

Sekulako jende piloa atxilotu zuten orduan. Pentsa, Indautxura eroan eta hainbeste jende zegoen ze, etxera itzuli eta biharamunean Durangoko kuarterean aurkezteko esan zidaten. Ez nuen lo askorik egingo baina joan nitzen biharamunean. Furgonetan sartu eta berriro Indautxura. Hamahiru edo hamalau lagun zelda bakoitzean. 72 ordura epaitegira eroan ninduten eta handik Basauriko kartzelara.



**"Kartzelatik irten orduko kaleko jantzikako lau polizia agertu ziren eta Indautxura berriz. Orduan bai, orduan bederatzি egun egun nituen han"**



**Ez zinen Basauriko kartzelako emakume durangar bakarra, ezta?**

Ez. Baziren beste batzuk baina beste kontu bategatik. Izan zen hor Bermeora joateko deialdi bat eta handik itzuleran hainbat isunak ezarri zizkieten. Ez ordaintzea erabaki eta batzuk kartzelan sartu zituzten. Horietakoak ziren Basaurin zeuden durangarrak.

#### **Kartzelaldi "arraroa" izan zenuen...**

Hilabete eta erdi inguru egin ostean kartzelatik Indautxuko komisaldegira eroan ninduten berriro. Nirekin egondako durangar bat, Bego Alberdi, libre utzi zuten eta dendetik pasa zen nitaz gal-



dezka. Kartzelan nengoela esan zioten. Berak ezetz, kartzelatik atera nindutela. Etxekoak han eta hemen galdezka hasi ziren, manifestazioak egin ziren Durangon...

#### **Eta zu bien bitartean Indautxuko komisaldegian.**

Baina ez da hor amaitzen! Pare bat egun egingo nituen han eta berriz ere Basaurira eroan ninduten, kartzelara. Han beste bizpahiru egun egin eta, libre uzten nindutela. Ni ordurako ez nintzen fidatzen eta taxi bat eskatu nuen. Nire senarraren arreba bat Basaurin bizi zen eta haren helbidea eman nion taxistari. Kartzelatik irten orduko kaleko jantzitako lau polizia agertu ziren eta Indautxura berriz. Orduan bai, orduan bederatzি egun egun nituen han. Jo, ez ninduten jo, baina presio psikologiko oso gogorra bai.

Azkenik, Durangora itzuli nintzenean, dendetik ezagutzen nuen zenbait jendeak agurra ukatzen zidala ohartu nintzen. Scouteko nire neska-mutikoen gurasoak ostera, oso ondo portatu ziren.

#### **1974an berriro atxilotu zintuzten.**

Bai, nire neba Jose eta biok. Madrilgo Correo kaleko atentatua zela-eta, gure nebak soldaduskan izan zuen kapitain batir iruditu zitzaison argitaratu zen robot erretreatuak Joseren antza zeukala. Gizon bat eta haudun zegoen emakume bat aipatzen zituen poliziak eta biok eroan gintzuten. Baina ni ez nengoena haudun! Hori irailean izan zen eta nik martxoan izana nuen semeara. Bi egunera utzi ninduten libre baina Jose bai, Jose bortizki torturatu zuten.

#### **1936an tira egiten hasi eta hara noaino ekarri gaituen hariak...**

Eta jarraitzen du hainbat etxetan. Hor dago, adibidez, presoen gaia oraindik konpontzeke. Zerbait egin beharra dago.

1 1969. kartzelatik irten berri, Maite etxeekoekin.



# BERRIZKO EMAKUME ERREPRESALIATUAK

Denborarekin ezagutuz joan gara 1936ko altxamendu faxistak eragindako errepresioaren eta homodamendiaren berri: hildakoak, kartzelaratuak, exiliatuak... Istorio horietatik gehienek gizonezkoen izenak daramatzate, ordea. Emakumeei gertatuak isilarazi egin dira. Hemen aurkituko duzue Berrizen salatuak eta zigortuak izan ziren zenbait emakumeren berri.

Testua: Maite Arrizabalaga

Estabilizatutako frontea apurtu ondoren 1937ko apirilean, golpisten tropak Bizkaira sartu ziren eta herri guzietan erregimen faxista ezarri zuten, aurretik hego Euskal Herri osoan egin zuten bezala.

Berrizen, laster eratu zuten udal korporazio berria, eta erregimen faxisten aldekoak zirenak, alkate berria izendatu zuten. Errepresioaren makinaria abian jarri zuten haren izendapenarekin.

Felipe Alberdi Gaztelurrutia -halan deitzen baitzen alkate berria- ekainean hasi zen bidaltzen herritarren kontrako lehen denuntziak menperatura berria zen Bilboko epaitegira.

Errepublikaren alde nabarmendu ziren guztiak salatu zituen; udal korporazio, Defentsa Junta bera eta herriaren ordena mantentzeko bolondresak, "Junta de Calificación" deritzen partaideak eta ez-kertiar edo nacionalista oro.

Aipatutako gehienak gizonak ziren, ze, ez dugu aurkitu emakumeen izenik aztertutako dokumentuetan, ez herriko antolamenduan ez frentean. Hala ere zazpi emakume berriztar salatuak izan ziren, antza erregimen faxista harentzat deserosoak izanagatik zigorra merezi zuten. 1937ko uztailean idatzi ziren salaketa fitxak - argazkian ikus daiteke bat - eta akusazioak fundamento gutxikoak eta oso orokorrak izen arren, (nacionalis-

ta izatea, gorria, gorri baten emaztea eta halakoak) jasotako zigorrak oso gogorak izan ziren. Salaketaren ondorioz, uztailaren amairaruntz atxilotuak eta kartzelaratuak izan ziren. Irailaren hasieran, haietariko 6 epaitu zituzten, 544/37 sumarioan, eta amaieran bat, 948/37 an.

Venancia, Sabina, Nizeta, Sofia, Ramona eta Teodora, sei urteko kartzela zigorra jaso zuten eta Gregoria aske geratu zen. Atxilotuak izan zirenetik Bilboko kartzelan egon ziren harik eta 1938ko otsailaren 23an Venancia, Sabina, Niceta eta Sofia Saturraraneko kartzelara eraman arte. Urte bereko martxoaren 7an Ramona eta Teodora eraman zituzten Bilbotik Saturraranera.

Saturraranen urte bi eta lau hilabete latz pasatu ondoren itzuli ziren etxera, Berrizentz San Pedro jaiak ospatzentz ari ziren egunean, 1940ko ekainaren 29an. Atzean utzi zuten beldurgarría zen kartzela, non dozenaka emakume eta ume hil ziren bizi baldintzak eta tratu txarrak eraginda.

## RAMONA URIBEGANEKOA



Berrizera nazionalen tropak sartu diranean Ramonak 56 urte zituen. Iurreta-ko Trazola baserrian jaiotako emakumea, Zubiztua baserriko Luis Gorroñorekin ezkonduta zen. Nortasun handiko emakume hau San Fausto ondoko Zubitxuetan bizi zen bere senarra eta han izan zituen 4 seme alabekin; Epifania, Rafael, kruz eta Jose Luis. Hauetako zaindu, hazi eta etxeko ekonomian funtsezko den barazki salmentan arduratzen zen. Horretarako zaldiz edo mandoz tiratutako karroarekin Zumarragaraino abiatzen zen astero bertako plazan gurdikada barazki eta ortuari saltzeko. Sinismen eta fede handikoa zen, haren arrosarioko misterioak ez zuten amaierarik. Epifania, Gazteluko ferrobiario gazte batekin ezkonduta zen eta haren lanagatik alaba bakarra Bergarara joan zitzzion. Rafael eta Cruz, osasunetako betetako mutil gazteak boluntario joan ziren gerrara, sortu berriak ziren batalioietara. Jose Luisen 14 urte zituen eta etxearen geratu zen berarekin.

Ramonak sekula ez zuen ulertu zer-gatik atxilotu zuten. Asko sufritu zuen kartzelan eta gaixotu egin zen. Ekainean etxera heldu zenean bere egoera pena-garrria zen. Horrenbeste ze, hiru hilabete geroago zendu zen.

1 Saturraraneko emakumeen kartzela.

2 Teodora Uribarriren aurkako sumarioaren xehetasuna.



## TEODORA URIBARRI




Teodora, 39 urteko emakume Berriztarra zen. Neska gaztea zenean, Deban beraneanteak uda pasatzen zuten hoteletan lan egiten zuen. Joan etorri horretan Felix Arrizabalaga eibartar begi berde argidun armeroa ezagutu zuen. Akaso bere aitaren gustukoa ez zen izango, sozialista, UGT-en sindikatua eta, mezatarra joaten ez zen horieta-ko gaztea zelako, baina, ezkonduta eta gero Bodega taberna dagoen etxearen hiru seme-alaba izan zituzten; Juanita, Jesus eta Angel. Plazan, Udalak duen alondiga-mataderoan etxe bizitza bat libre geratu zenean hara pasatzen ziren. Han jaio zen Pilar, laugarren umea.

Felixek, Kixkorra zuen lantegitxoan lan egiten zuen Soldatuk bizitza duina egiteko beste ematen zien; bizitzeko lain eta kito! herriko gehiengoren antzera!

Urtean behin denak plaiara joaten ziren eta, maiatzak 1a, Eibarren ospatzentz zuten bertako "Casa del Pueblo"n inguruau. Gerra hasi zenean Felixek ardurak hartzitzen zituen. Defentsa Komitekoek egiten zituzten txandak betetzen, herriko segurtasuna bermatzeko, Periko erro-takoarekin sarri joaten zen Bilbora generoa ekartzera herrian banantzeko, eta Ikerketa Komisioan parte hartu zuen, tradisionalistak zirenak kontrolatzeko.

Teodora karakter onekoia zen eta, pazientzia bizi izan zuen gerra egoera latza. Pilar txikienak 6 urte zituen, Jesussek 11 eta Angelek 10, Juanita nagi-siak 13, atxilotu zutenean. Ordurako bere senarra atxilotua zegoen. Oso go gorra izan zen kartzelaldia berarentzat, lau umeak umezurtz geratu zirelako.





## NICETA ETA SOFIA ARIZNABARRETA



Niceta eta Sofia gazteak Berrizen jaio ziren, Olakuetan gaur egun erdi aban-donatuta dagoen etxe batean, batzokiaren aurrean hain zuzen. Haien ama Maria, gazte geratu zen alargun. Biak ziren jostunak. Sofiak 29 urte zituen kartzelaratu zutenean eta sofiak 21. Aurreko urteetan sortu berri zen batzokian askotan ego-ten ohi ziren. Josten ikasi zuten eta oso apreziatuak izan omen ziren lan horretan. Nizeta izan zen kartzelaraturako emakumeen artean zendo zen azkena. Hala ere ez ginen iritsi garaiz eta sekula ezin izan dugu jaso testigantza zuzenik.

## BENANTZI ETXANO


Benantzi Ondarroan jaio zen, baina, urteak egin zituen Berrizen abade etxean lanean. Han atenditzen zituen Luis Gastelurrutia parrokoa eta beste abade bat. Alarguna zen eta Concepcion bere alaba bakarra hil zenetik, Iñaki iloba izan zen bere kuttuna. Concepcionen senarra berriro ezkondu zen eta bi seme alaba izan zituen. Benantzik denak zituen etxeeko eta Ondarrutik Berrizera ekarri zituen guztiek Ondarrua golpisten menpe zegoelako. Irakurle zalea omen zen eta egunero joaten zen alboko Urkijoren famiaren etxera egunkaria irakurtzen, haien etxean hartzen baitzen prentsa. 60 urte zituen atxilotu zutenean.



## SABINA IBARROLAZA

### "Sabina Pola"

Sabinak 33 urte zituen kartzelaratu zutenean. Aurreko urteetan espero zuen umetxoa galdu zuenez oso momento latzak bizi izan zituen. Gallartan jaio zen arren bere gurasoak Markinakoak ziren, eta Markinan ezagutu zuen bere senarra izango zen Leon Kortabarria berriztarra. Gerra aurrean hasi zen dendari lanetan eta hala jarraitu zue n espetxealdiaren ostean. Oso ezaguna zen herrian batez ere umeentzat berak saltzen bait zituen zinema aurrean garaiko txutxeak. Nazionalistatzat zuen bere burua baina antza sekula ez zuen ulertu zer eragin zuen bere atxiloteta.





# AGAPITA ETXABURU ETA JOAKIN OSTOLAZA

*"Durangoko hondakinetatik sortutako maitasuna"*

Joakin Ostolaza Goñi 1908ko irailaren 17an jaio zen Zarautzen. Artean gazte, Joakin-en familia Bergarara mudatu zen haren aitak eta bazkide batek taillaketa tailerra jarri baitzuten bertan. Joakin arotz beharrean hasi zen aitarenean.

Agapita Etxaburu Isasi 1919ko abuztuaren 2an jaio zen Durangon eta, bere

ondoren, beste zazpi neba-arreba izan zituzten gurasoek. Aita, Leon Etxaburu Mañarikua, palista profesionala izateaz gainera, tornularia ere bazen eta tailer txiki bat zeukan Durangon gerrak urten aurretik.

1936ko altxamendu faxista gertatu zan ez balitz, litekeena da Joakinek eta

Agapitak elkarren berririk ez izatea inoiz. Bata Bergaran eta bestea Durangon, euren bizimoduak ez ziren, derrigorrean, gurutzatzekoak.

## **Joakin preso.**

Joaquin abertzalea eta ideia aurrera-koiak zituen gaztea zen eta gerra hotsak



hedatu zirenean gudari joan zen. Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren alde borrokatu ziren beste askoren suertea izan zuen: faxistek preso hartu zuten. Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidali zuten lehenengo, eta handik Burgosko San Pedro de Cardeñara eroan zuten 1937ko abuztuan. 1937ko irailean, langileen batailoi disiplinario baten parte zela, Trabajadoreen batailoi legez ezagutzen ditugunak, Durangora iritsi zen bombardaketak era-gindako kalteak konpontzeko esklabu beharretan aritzera.



#### **Agapitaren zigorra**

Neska gaztea zen Agapita Etxaburu altxamendu faxista gertatu zenean, baina lanak eta etxeiko ardurek gogortua. Gerran neba nagusia galdu zuen, Victorio Etxaburu Isasi. Victorio ANVko

ekintzailea eta Tomas Meabe batailoiko milizianoa izan zen. Amurrio inguruan hil zuen faxistek jaurtitako bonba batek 1937ko maiatzaren 28an 19 urte zituela. Haren lobak Victorioren gorpua berreskuratzen saiatu izan dira baina behar zuen lekuaren gerora eraiki egin dela-eta, ez dute egundo Victorioren gorpuzkiak berreskuratzerik lortu.

Faxistak Durangora sartu zirenean, 1937ko apirilaren 28an, une gogorrak bizi izan zituzten durangar askok. Etxaburutarrek etxea eta tailerra galdu zituzten. Hasiera batean gurasoek Agapita senitarteko batzuen etxera bidali zuten Durangotik kanpora. Zurrumurruak zebiltzan faxistek hartzen zituzten herriean neska gazteei gertatutakoei buruz eta, badezpada, denbora bat egin zuen etxetik urrun. Behin Durangora bueltan, Agapitak bere azalean ezagutu zuen irabazleen nagusikeria. Beste emakume batzuekin batera (Tomas Uriguena gogoratzen dute Agapitaren ahizpe), nahinoz agintzen zieten Durangoko zenbait handiki faxistaren etxeak garbitzera joateko, edo Olalde jauregian zegoen komandantzia militarrean beste hainbatetako lanak egiteko. Esan gabe doa lanok ez zirela ordainduak eta ez zegoela haiei uko egiteko modurik.

Elizgizonak ere ez zeuden "galtzaleei" eskua luzatzeko. Elizan izan ohi zuen aulkia emakuke karlista batzuk gura zutela-eta, Agapita lekuz aldatzera behartu zuten. Ez ei zen gehiago elizara itzuli. Ez zen bidegabekeren aurrean isiltzen zen horietakoa eta ez ziren ahoa larregi zabaltzeko sasoiaiak haien.

#### **Trabajadoreak Durangon**

Faxisten mezua izan zen Durango "gorriek" suntsitu zutela. Gezur hori makilatzat hartu eta halaxe ekarri zituzten Durangora hainbat eta hainbat gudari eta miliziano errepiblikar lan behartutara, ustez eurek txikitutakoa eurek berreraiki zezaten euren izerdi eta odoiez. Durangoko errepiblikazaleak eta ingurueta baserritarra ere, euren animalia eta gurdiekin, derrigortu zituzten hondakinaren garbiketan eta berreraikuntzan aritzera. Bonbardaketa jasan

edo bombardatzailen kontra borrokatu zirenak izan ziren lanok egin behar izan zituztenak.

Egoera horretan, elkartasun sareak sortu ziren Durangon lan behartuetan ari ziren eta bertako abertzale eta errepublikazaleen artean. Bitarteko handirik izan ez arren, elkarri laguntzen saiatu ziren arropak garbituz, janaria eramanez, babeska eskainiz edo egurketan lagunduz.

#### **Elkar ezagutu**

Testuinguri horretan ezagutu zuten elkar Agapitak eta Joakin. Agapitak garbitzen baitzizkion arropak Joakin. Ezagutu eta maitemindu. Bikoteak apur batean itxaron egin beharko zuen, baina. 1938Ko irailean Joakin Durangotik Deustuko Fábrica Militarizada deitutakora eroan zuten. 1939an utzi zuten libre. Agapita eta Joakin 1942an ezkondu ziren Durangon eta Bergarara joan ziren bizitzera. Lau seme-alaba izan zituzten.



Agapita eta Joakin seme-alabek begirunez eta maitasunez hitz egiten dute gurasoek. Zintzoak eta euren ideiatan irmoak zirela diote. Diktadura garaian ideiei eutsi eta faxismoari aurre egin zioten, euskarari eutsi, eta gerora seme-alabei ere euren aldarrikapenetan lagunduz. Durangoko hondakinetan sortutako maitasuna Bergaran berreraiki zen.

1 Agapita eta Joakin lau seme-alabekin.

2 Joakin Ostolazaren gudari argazkia.

3 Leon Etxaburu Mañarikua. Agapitaren aita.



# Bego Oleaga

*Durangotik Gasteizera gure historian barrena*

Frankismorik grisenean murgilduta bizi zen herria ezagutu zuen umezaroan. Pizkunde bat gero, bere baitan eta inguruan. Iurreta abadetxea, Herri Gaztedi, ETAren hasierak... Durangon sortu zen Bego "Apata", oraindik orain askok ezagutzen duten moduan. Gasteizen bizi da 1975az geroztik Bego Oleaga.

## Aita, Ignacio Oleaga, "Apata", gerran gudari ibilitakoa, ezta?

Apatakoa zen eta hortik geratu zai-gu familia guztiari "Apata" gatxizena. Aita eta beste bi osaba ere aritu ziren gerran, baina harrigarria badirudi ere, ez dut sekula jakin zein batailoitan ibili zen, ezta zertzuk pasatu zituen gero. Eta ez da esateko prest egon ez zelako. Ez zen gizon berbalduna beharbada, baina gal-detuz gero erantzongo zuen.

## Ama ere enborreko ezpala zenuen, ezta?

Bai. Ama Miren Erdoiza, Arriandiko (Iurreta) Matxinena baserrikoa zen. Bere gurasoek Durangoko Batzokiaren ardura hartzut zuten gerra aurretxoa. Bizkaitarrak ziren. Bonbardaketaren ostean ihes egin behar izan zuten. Ama amamarekin Santanderrean joan zen eta handik Ipa-

rraldera. Eurak bueltatu eta zati batean oraindik aitita Donibane Garazin geratu zen. Bueltan lanik aurkitu ezinda ibili zen bolada batez, ez zioten inon ematen.

**"Esan nion amari halakoren aita gorria zela. Esaten ez dit, bida, amak: "Bada, zure aita ere bai". Jota geratu nintzen."**

## Gerraostean jaiotakoa zara. Zenba-teraino markatu zintuen familiaren historiak?

Bada, begira. Esan behar dizut ni, neurri batean, oso ume inozoa nintzela eta oso neure munduan bizi nintzela. Beste alde batetik etxearen ez zen horretaz berba egiten. Beraz ezin dizut esan. Bai badaukat gogoan zelan behin eskolan,

ni Santa Susanara joaten nintzen, ikas-kide batek esan zuela: "pues mi padre es rojo". Eta ni zur eta lur. Ze, noski, guri mojek esaten ziguten gorriak zirela deabruen parekoak, bortxaketak eta nik dakit zenbat istorio!... Joan nintzen etxera eta esan nion amari halakoren aita gorria zela. Esaten ez dit, bida, amak: "Bada, zure aita ere bai". Jota geratu nintzen. Nik ezagutzen nuen nire aita eta gizon on bat zen, ez zuen bat egiten gorriaren deskripzio horrekin.

## Santa Susanan ikasi zenuela esan duzu. Zer zen garaiko heziketa hura?

Beno, beno... Heziketa deitza asko esatea da! Benetan diotsut, ez dakit zelan atera garen halako jende, zelan esan, normala. Pekatua, beldurra, sumisioa, klasismoa... Guri esaten ziguten La Villara joaten zirenekin ez berbarik egiteko gu señoritak gogel-eta.



Moja batekin zortekoak izan ginen: Sor María Presentación. Jose Antonio Agirreren lehengusina zen eta, gerra aurretik, artean moja ez zela, Arriandiko eskoletan gure amaren maistra izandako. Harek esaten zigun beste mojek esandako barbaridadeak (Durangoko bonbardaketaz, gorrietz...) gezurrak zirela. Durangon prakak jantzi zituen lehenegotako neska izango nintzen ni, eta gainontzeko mojek egundokoak esan arren, beste honek ondo egiten nuela esaten zidan. Bidaiatutakoa zen, kultura zeukan... Salbuespna eskola hartan.

### Noiz hartu zenuen euskaldun izatearen kontzientzia?

Berandu. Gauza gehienak berandu begin ditut baina ez naiz damutzen. Gure etxeen gurasoek euskaraz hitz egiten zuten euren artean baina guk gazteleraz erantzuten genien. Gero egon zen halako pizkundetxo kultural bat. Datekin oso txarra naiz baina Sanfauston Euskal Jaiak egiten hasi ziren, San Francisco eskolaren inguruan Tronperri dantzataldea ere sortu zen eta gu bueltan beti, mendiko koadrila ere baguen...

Gero, pertsona klabea Gurutze Arregi izan zen. Acción Católica zegoen. Kontuan hartu garai harten dena mugitzen zela elizaren magalean. Gurutzek berak animatu ninduen parte hartzera. Erljioaren bestelako irakurketa bat egiten zen bertan, sakonagoa. Pentsa, hor hasi eta Bilbora joan ginen Maiatzaren Leheneko manifestazio batera eta...

### ...Atxilotu egin zintuzten.

Hori da. Ni sekula manifestazio batean egon gabea nintzen eta non ikus-ten dudan gris bat emakume bat jotzen. Ni, neure inozoan, han noa polizarengana zergatik jo zuen galdetzera. Polizia zarata batean hasten zait eta nik “¡No me grites!”. Furgonetan sartu eta atxilo eroan ninduten Indautxuko komisalde-gira.

Gau bat pasatu nuen han. Bost neska ginen. Orduan ohartu nintzen ni ezjakina izan arren han zeuden besteak OAC-ekoak zirela eta ondotxo zekitela zergatik zeuden han. Entzun egiten nuen nik. Escobar izeneko polizia zoritzarrez eza-gun batek interrogatu ninduen, baina nik orduan ez nekien ezta nor zen ere.

### Scout taldean ere ibili zinen.

Bai, eta hor bi gauza gertatu ziren. Batetik gure arduraduna zena, Maite



Agirre, Pórtico-koa, atxilotu egin zuten. Cirarda artzapezpikuaren genen ere joan ginen ea zergatik atxilotu zuten. Bestetik, Scoutentzako lokal bat behar genuela eta lurretako abadetxearen egin ziguten leku bat. Julen Kaltzada zegoen orduan lurretan apaiz eta abadetxe har-tan atea beti zegoen zabalki mundu guztiarentzat. Han egingo nuen Herri Gaztedikoen ezagupidea eta beste salt-sa batzueta zebilen hainbat jendere-na ere.

**“Amak behin esan zidan askatasuna zela garrantzitsuena. Eurek ez zutela izan eta ez zuela gura guk euren bizitza izaterik”**

### Zer zen Herri Gaztedi?

Acción Católica hainbat sailetan banatuta zegoen eta horietako bat zen JARC (Juventud Agrícola y Rural Católica). Euskal Herrian Herri Gaztedi zen. Nik ezagutu nuenerako indar handia zuen Gipuzkoan eta mugimendu handia Durangaldean ere. Ebanjelioa bazegoen baina beste modu batean. Herrien es-kubideak, hizkuntza, kultura... Halako gaia lantzen ziren. Rosa Mari Artza zen Durangaldeko arduraduna, Matias Oregi berriztarra ere hor zebilen. Julen Kaltzada, Xabier Amuriza, Alberto Gabikago-goeaskoa... Horiek denak hor ezagutu nituen.

Nik ordurako ez nuen federik baina oso mugimendu interesgarria zen. Heste alde batetik euskararen gaia ere asko azpimarratzen zen eta nik ahalegina egin behar izan nuen berriro ere berres-keratzeko edo ikasteko.



**“Gizarte Eskolak” deitutakoak ere lurretako abadetxeen ezagutu zenituen.**

Bai, baina oker ez banago hori Herri Gaztedirena baino ETAren frunte kul-turalaren kontua zen. Hasi ginen apur bat formatzen. Gogoan dut hitzaldiak ematera etorri zirela, Abel Muniategi, Xabier Kintana Darwini buruz hitz egite-ra, Gregorio Monreal ekonomiari buruz... Hor hasi nintzen klandestinitatean ere bazeabilen jendearekin topo egiten eta horrekin liluratzen, nolabait.

### Hurrengo pausoak klandestinitatea, beraz.

Panfletoak banatu, jendea ezkutatu eta ihes egiten lagundu... Holakoak. Amak ere behin baino gehiagotan la-

gundu zidan halako lanetan. Nagusiagoa balitz legez mozorroto eta berak eroaten zituen panfletoak inoiz. Gure amak beharbada ez zuen egiten nuen guztia ulertuko baina behi esan zidan askatasun zela garrantzitsuena. Erek ez zutela izan eta ez zuela gura guk euren bizitza izaterik. Horretan oso eskuzabala izan zen. Eta aita ere bai. Ez zuen ezer esango, baina isiltasuna konplizea zen.

### **Durangotik alde egin zenuen 1969an eta hainbat leku pasa zenituen urte gutxitan.**

Bilbon ibili nintzen Herri Gaztediko liberatu moduan. Gero hura utzi eta lantegietan eragitea zen gure helburua. Bermeon lan egin nuen kontserbera batean. Zer zen hura! XIX. mendeko baldintzetan ari ziren. Gure abokatuei Bermeoko kontuak kontatzen nizkienean ez zituzten sinesten!

### **Bermeotik Hernanira.**

Frente Obreroan ari ginen. Zaila zen leku berean luzaro egotea. Gure lana zen gindoazen tokian kontraesanak azalera-tzea eta jendeak kontzientzia hartzea. Bandres abokatuak deitu zidan polizia usaina hartzen hasia zela eta handik alde egiteko. Horrelaxe iritsi ginen Gasteizera 1975ean.



### **Eta 1976a hastearekin batera Gasteiz irakiten ari zen lapikoa zen, martxoan lehertuko zena.**

Halaxe da, bai. Nik lan egiten nuen fabrika ez zegoen greban baina beste asko bai. Txandek uzten zidatenean asanbladetara agertzen nintzen, ikasterra. Hainbat talde zeuden asanbladaren barruan eta, horietako bat, hasieran, grebalarien emazteek osatzen zutenaren, gerora emakumeen asanblada dei-

tuko zena. Hori prozesu izugarria eman zen. Gizonen greba izatetik gure greba izatera pasa zen. Gaur egun esaten da bizitza jarri behar dela erdigunean? Bada gogoan dut zelan grebaren momentu batetik aurrera patroiak itzelezko presioa egiten hasi zirela, emazteen bitartez, gizonak lanera bueltatu zitezzen. Eta emakume batzuk esan zuten: "Greba hau irabazi behar dugu nahitaez. Greba hau galtzen badugu gure bizitza infernua izango da ze, nork ordainduko ditu gure senarren frustrazioak?

### **Eta martxoaren 3a etorri zen.**

Goizetik gehiago tentsioa nabari zen. Tiroak ere izan ziren. Arratsaldeko asanbaldara jendetza batu zen San Francisco elizan. Hor barruan hasi ziren tiroak, gasak... Bost hildako eta konta ahala zauritu. Nik orduan ikasi nuen boterea zer zen eta bere helburuak lortzeko zer egiteko kapaz ziren.

Hori bai, Gasteiz ere ez zen sekula gehiago berdina izan. Jendeak bere indarra deskubritu zuen. Gero etorriko ziren alderdi politikoak eta sindikatuak, bakoitza berera, baina bestelako hainbat proiektu ere ez liratke sortu izango gertakari haietan eman izan ez balira.

### **AMAMAK**

mezarekin edo arrosarioarekin bat egin ez zezan.

Erraza zait Modestaz eta Miren idazki berean aritzea, hainbeste gauza zitzuten komunean. Amama Miren gogoratzentzut du Durangoko bombardaketa ahoan eta oraindik ere izua aurpegian. Aitak kontatua dit amama Modestari seme jaio berria hil zitzaiola besoetan gerra denboran, gosez, bularretik esnerik ateratzentz ez zitzaiolako. Miren erbestera jo zuen familiarekin. Modestak lan, eta lan, eta lan egin zuen pobrezian zazpi seme-alaba aurrera ateratzeko.

Pasa ziren urteak, ugaldu ziren bat-batean mundua irauli nahi zuten gazte eroak. Miren eta Modestaren seme-alabarik bazen tartean, eta

bakoitzak bere modura babes-tu zituen susto eta disgus-tu dezente —baita poz ugari ere— eman zizkieten ume kon-formagaitzak. Ilobei maitasun-nik emateko tarterik ere har-tu zuten aurrerago: Miren urdaiazpiko eta gazta bokatak ditut gogoan; Modestak estra-perloan bezala eskura ematen zizkidan goxokiak.

Amama Miren eta amama Modesta. Biak ziren nortasun, indar eta jenio handiko emakumeak, etxe barruan eta etxe-tik kanpo. Urteetara konturatutu naiz: haiei esker normaldu ditut nire bizitzan, zorionez, zoritzarrez hain normalak ez diren emakumeen hainbat ja-rreka.

**Zigor Olabarria Oleaga (Begoren semea)**



# ZAZPI ZALDIBARTAR

Testua eta argazkiak: **Castet Elkartea**



Faxismoak atzeguardian hildako zaldibartarrak ekarri nahi ditugu gogora auren. Franteetan ibili ez zen jendea. Bonbardaketak, fusilamenduak, "istripuak", gaixotasunak, denetarik egon zen. Ez dugu biztanleria zibila deitu, hala izan arren, zibilak zirelako faxismoaren kontra franteetan ibili ziren gehien-gehienak ere: armak hartu zituzten baserritarra eta fabriketako beharginak, batez ere.

## **Angela Otadui eta Sabin Garitazelaia bonbapean**

Zaldibartar bi hil ziren faxisten bonbardeketen ondorioz. Bata, Angela Otadui, 28 urtekoa, Munitibarren hil zuten 1937ko apirilaren 26ko eguerdian. Izatez Lupiterakoa, Aranguren-erdiko baserrian bizi zen izeko-osabekin eta lehengusu-lehengusinekin. Egun bi lehenago, bere lehengusu Pedro Gallastegirekin (9 urte) eta beste senide eta lagun batzuekin Gernikarako bidea hartu zuen faxistengandik ihesi. Angela, Pedrorekin eta Munitibarko beste emakume batekin zegoen hegazkin alemaniarrek erasoari ekin ziotenean. Andrazko biak hil ziren; Pedro Gallastegi umea larri zauritu zuten.

Bestea Sabin Garitazelaia dugu, Zalduko, (16 urte) Karrantzan hil zuten hegazkin alemaniarrek, 1937ko ekainean. Honek ere ihes egin behar izan zuen faxistengandik.

## **Leon Urtiaga fraidea**

Leon Urtiaga, 49 urteko zaldibartarra, Etxanoko karmeldarren komentuan zeagoen fraide, eta bertan geratzea erabaki zuen frankistek herria hartu zutenean. 1937ko maiatzaren 19an fusilatu zuten ortuko horma baten kontra.

Agindua Oriamendi batailoiko Genaro La Lastra teniente koronelak eman zuen. Fusilatze pelotoia Serapio Altuna tolosarrak zuzendu zuen, gerora bere herriko alkate eta Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu izango zenak.

## **Francisca Berasaluze eta Paulo Areitiourtena erbestean**

Ez ziren ihesean edo horren ondorioz hildako zaldibartar bakarrak izan. Francisca Berasaluze, Zalduko, Borgonyan (Herrialde Katalanak) errefuxiatuta zegoela hil zen, 1937ko azaroaren lehenengoa.

goan. Hirugoeita bat urte zituen. Paulo Areitiourtena ere, Gazagaetxearria baserrikoa, Herrialde Katalanetan hil zen, Perpinyanen hain zuzen, 1939ko apirilaren 29an, 33 urte zituela. Areitiourtena 1933tik Zaldibar Buru Batzarreko kide zen.

## **Gotzon Garitazelaia eta Pedro Belar Sagarna umeak**

Zaldibartar ugari egon ziren Katalunian errefuxiatuta, emakumeak eta umeak gehienak. 1939an Gotzon Garitazelaia umetxoa hil zen Zaldibarren, Katalunian errefuxiatuta zegoela hartutako gaixotasun baten ondorioz.

Beste ume bat ere eraman zuen ge rrak Zaldibarren: Pedro Belar Sagarna, Gazagaonaindia baserrikoa. Zazpi urte zituen lurretik hartu zuen eskuko bonbak hil zuenean, 1937ko maiatzaren 15ean.

1 Francisca Berasaluzeren irudia koadroan.

2 Sabin Garitazelaia.

3 Paulo Areitiourtena.

4 Leon Urtiaga fraidea.



1

# ANBOTO TABERNA

## *Garai bateko aterpea*

Maria Urizar Marzanak eta Gabriel Martinez Fernandezek zabaldu zuten Anboto Taberna berrogeita hamargarren hamarkadan. Durangoko Goienkale kalean. Durango taberna gehien batzen dituen kale ezagun horren paisaian betidanik egon dela dirudien tabernak badu bere historia. Historia hori Maria eta Gabrielekin hasten da, baita taberna bera zabaldu aurretik ere.

Maria Urizar Martzaan jaio zen eta Gabriel Arrazolan. Gaur egun biak Atxondoko udalerriaren parte badira ere, garai hartan Martzaa Axpe zen, eta Arrazolak ere udalerri propioa osatzen zuen. Beste familia askotan bezala, Maria eta Gabrielean ere, 1936ko altxamendu faxistak hankaz gora jarri zuen ordura arteko bizitza. Mariaren hiru neba, Anastasio, Ambrosio eta Julian, gudari joan ziren faxismoa borrokatzera.

**“Gabriel Santoñako espetxeen izan zuten lehenengo. Handik Puerto de Santamaría eroan zuten eta, azkenik, Valladoliden aritu zen lan behartuetan errepriseak egiten”**

Gabrielen kasuan, lehenengo pertsonan ezagutu zuen fronteko lerroa, Herminio eta Angel anaiek bezala. Familia bateko zein besteko kideek kartzelan

eta langileen batailoi diziplinarioetan ordaindu behar izan zuten euren compromisoa frankistak gailendu zirenean. Gabriel Santoñako espetxeen izan zuten lehenengo. Handik Puerto de Santamaríara eroan zuten eta, azkenik, Valladoliden aritu zen lan behartuetan errepriseak egiten. Aski zigor diktadurapean bizi zen gizarte harten betirako markatua geratzeko.

### Durango, Garai, Durango.

Maria Urizarrek Goienkaleko beste taberna ospetsu batean egiten zuen behar gerra aurrean: Arkarazon. Gabriel berri, torneru aritzen zen OLMA. Gerraostean, OLMAko lana galtzea gutxi ez -eta, Gabrieli ez zioten lanerako beharrakoa zen “Carta de trabajo” ematen. Egoera horretan, berrogeiko hamarkadaren hasieran ezkondu eta Maria eta Gabriel Garaira joan ziren bizitzera, bertako Herriko Tabernaren ardura izan baitzuten zenbait urtez. Bi seme-alaba izan zituzten.

### **Gabrielilloak**

Gerraostea eskasia garaia zen. Lehengairik oinarrizkoenak eskas baziaren, are eskasago luxutat hartu zitezkeenak. Gabrielek, ofizialki lan egiteko baimenik ez zuenez, estraperloan aurkitu zuen bizirauteko moduetako bat. Tabako orria kontrabandoan ekarri eta berak egiten zituen zigarroak saltzen zituen Gabrielek. Merkatu plazaren ostean zuen lokal batean egiten zituen zigarroak, “Gabrielillo” izenarekin oso ezagunak izan ei zirenak. Gabriel eta Mariaren alaba Rosa Martinezek gororatzentzu Durango 1936 Elkarteak egindako grabaketa batean, aitak motor bat zuela, eta alforjak Gabrielilloz bete-bete

**“Gabrielek, ofizialki lan egiteko baimenik ez zuenez, estraperloan aurkitu zuen bizirauteko modua”**

1 Jose Manuel Martinez, Gabriel Martinez, Maria Urizar eta Rosa Martinez Anboto taberna zaharrean.



eginda, Bilboko hainbat tabernataraino ere joaten zela zigarro ospetsuok saltzera.

### **Anboto taberna zabaldu**

50. hamarkadan zabaldu zuten gaur egun ezagutzen dugun Anboto taberna Mariak eta Gabrielek. Mariaren izenean zabaldu zuten, Gabrielek ezelako negoziorik martxan jartzeko baimenik bari kjarraitzen zuelako gerra bukatu eta hamar urte baino gehiago passa ostean ere. Familia Sanfaiston bizi zen, "Munitxa" etxearen. Antza, etxe hartara bidea ondo ikasia zuten Durangoko guardia zibilek ere. Franco diktadorea Bizkaiara hurbiltzen zen aldiro, beste hainbatekin egiten zuten legez, Gabriel, "badaezpada", Durangoko kartzelara eroaten zuten bizpahiru egunez.

Rosa alabak gogoan du Sanfaustoko etxearen tabakorri zakuak ikusi izana, baina ez zen beti Gabrielilloak egiteko materiala bakarrak izango han ezkutatzen zutena ze, ganbarara ezelan ere ez igotzeko agindua jasotzen zuten tartera etxeko umeek. Tabakorri zakuetan burua pausatuta, batek baino gehiagok harti izango zuen atsedean ganbara hartan, seguru asko.

### **Antifrankisten topaleku**

Mariak eta Gabrielek ez zioten sekula uko egin euren idealei. Bata zein bestea uste sendoko pertsonak ziren. Zeinek bere rola jokatzen zuen, bai tabernan eta baita familiar ere, Rosa alabak goratzan duenez. Gabrielek garaiko elizarekiko zuen ezinikusia ez dauka ahazteko, antiklerikalaren erabat. Ezin da ahaztu botere frankistaren zutabeetako bat zela eliza, eta pulpitoetatik


behin eta berriro errepikatzen zirela bai frankismoaren bertsio ofiziala eta baita beldur eta kontrol sozialeko mezuak ere. Behinola, Don Jose Etxeandiak, Santa Anako parrokoa zenak, bihurrikeria batetik aterkiarekin jo ei zuen Gabrielen semea. Ez bat ez bi, Gabriel Santa Anako sakristiaria joan eta kolkotik heldu ei zion apaizari eta bere semea berriro ikutzen bazuen errekan amaituko zuela agindu zion.

Anboto taberna estimatua zen durangarren artean. Maria eta Gabrieleean ideologia ezberdinak ekintzak antifaxistak ibiltzen ziren. Durango 1936 elkarteari jasotako leku-kotasunetako batean, Antonio Cabello militante komunista durangarrak konstatzen du zelan *Mundo Obrero* banatzeako puntueta bat izaten zen Anboto taberna. Gabriel eta Maria jakinaren gainean egoten ziren eta Antonio *Mundo Obrero*rekin iristen zenean, tabernan inor susmagarririk ez bazegoen aurrera egiteko keinua egiten zioten. Komuneko zisternan uzten zituen hartu behar zituenak har zitzan.

Beste lekukotasun batean, Aitziber Iigorasek, Durangoko alkate ohiak, gozoan du bere gurasoek kartzelan zeuden presoen alde jantzi, janari eta diru-bilketak antolatzeko Anboton batzen zirela.

Maria Urizar ez zen-eta eskuak gurutzatuta egotekoa. Haren alaba Rosak akorduan du amak sukaldetan militante bat gordeta zeukala behin. Guardia zibilak tabernan sartu eta karkabara ematen duen atetik eman ei zion ihesbidea. Zamorako kartzelan sartu zituzten apaizen aldeko dirua batzen ere ibili zen Miren Erdoizarekin batera. "Lagun minak ziren. Batzutan elkarrekin paseo bat ematera zihoa zela esaten zuten eta tabernatik desagertzen zen. Paseo horietan zehazki zer egiten zuten ez dakit, baina haien ezagututa, imajinatu dezaket".

**"Maria Urizar ez zen eskuak gurutzatuta egotekoa.  
Behin sukaldetan militante bat gordeta zeukala guardia zibilak tabernan sartu eta karkabara ematen duen atetik eman zion ihesbidea"**



1 Gabriel eta Maria barran lanean.

2 Anbotoko familia tabernako atarian.

# JUZGAR A LOS CRIMINALES

# ***Historia y cronología de una querella***

Testua: **Maria Gorosarri**

El franquismo, enmarcado en el fascismo católico (Croacia, España y Portugal), buscó la aniquilación del enemigo, a través de una sociedad vencida. El último movimiento del régimen consistió en proclamar tres leyes de amnistía que impidieron la posibilidad de imaginarse un futuro justo.

La primera ley de amnistía se aprobó en 1969 y evita juzgar los crímenes de lesa humanidad cometidos durante la guerra (entre 1936 y 1939). Después, la ley parcial de amnistía de 1976, firmada ya por Juan Carlos I, supuso la amnistía de los delitos “de intencionalidad política y de opinión”, sin resultado de muerte, cometidos una vez terminada la guerra: desde 1939 a 1976. Finalmente, la ley de amnistía de 1977 amplió ese vacío legal a “todos los actos de intencionalidad política, cualquiera que fuese su resultado, realizados con anterioridad al día 15 de diciembre de 1976”. A través de esas tres leyes, el régimen franquista protegió la impunidad de todos sus criminales. Esas tres leyes, junto al resto de leyes y condenas franquistas, constituyen el orden legal actual.

Sin embargo, la promulgación de tales leyes no fue casualidad. Al terminar la 2<sup>a</sup> Guerra Mundial, el orden internacional incluyó el crimen de lesa humanidad. De esa manera, se pusieron límites a la guerra, especialmente, respecto a la población civil. Así, el asesinato, la desaparición forzada, la tortura, el tras-

lado forzoso de la población y el encarcelamiento en contra del derecho internacional constituyen desde 1946 (con la creación de las Naciones Unidas) crímenes de lesa humanidad y nunca prescriben. Por ello, las leyes de amnistía han supuesto el principal escollo para blindar la impunidad del fascismo español, pero, en 2018, PSOE, PP y Ciudadanos volvieron a votar en contra de reformar la Ley de Amnistía de 1977.

**“El asesinato, la desaparición forzada, la tortura, el traslado forzoso de la población y el encarcelamiento en contra del derecho internacional constituyen desde 1946 crímenes de lesa humanidad y nunca prescriben”**

COLEGIO DE PROCURADORES  
Burgos, inscripción 15/01/2016

Avda de la Constitución, 10  
24001 Burgos  
CIF: B-24000274  
Tel.: 94-65000001-65000007

**UPAD DE 1<sup>ª</sup> INSTANCIA E INSTRUCCIÓN N<sup>º</sup> 3 DE  
DURANGO**

**DURANGOKO LEHEN ALEHIAZALDIKO ETA  
INSTRUKZIOKO 3 ZK.KO ZULUP**

**Objetivo previo / Avería judicial atribuidos 216/2017**

Procedimiento ordinario/alterio procedimiento /  
Número de expediente: 216/2017  
MIG (UFI) / UFI-BURGOS / 000743-2017000004

Hecho denunciado/leído en la sección: Lasa (municipio)/Gobernación: autorizado

Representante / Declaración/AVERTIMIENTO DE DURANGO  
Firma:  (Fotografía del representante)

Representante / Declaración/CONOCIDO  
Firma:  (Fotografía del representante)

**AUTO**

JUEZ(A) QUE LO DICTA: D. JAVIER GARCIA GARCIA  
Lugar: DURANGO (BURGOS)  
Fecha: once de enero de dos mil diecisiete

**ANTecedentes de HECHO**

**PRIMERO.-** Las presentes diligencias sirven de remate por hechos que, apartamente, pueden constituir delitos de LESA HUMANIDAD, CRIMENES DE GUERRA, CONTRA PERSONAS Y BIENES PROTEGIDOS EN CASO DE CONFLICTO ARMADO.

**SEGUNDO.-** Se han practicado las diligencias encaminadas a determinar el autor o autores de los hechos y las personas que han intervenido en los mismos, con el resultado que consta en los autos.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**PRIMERO.-** Dispone el artículo 779.1.1 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal (LEC), que practicadas sin derrama las diligencias pertinentes, se resuelva que los hechos no son constitutivos de delito o que no aparece suficientemente justificada la perpetración del delito, el Juez reanuda el procedimiento que corresponda.

**SEGUNDO.-** Según la Sentencia de la Audiencia Provincial de Barcelona, -sección 8<sup>a</sup>, de fecha

Ante la imposibilidad, así, de juzgar esos crímenes en España y basándose en el principio de jurisdicción internacional, en 2010 se interpuso en Buenos Aires (Argentina), una querella que inves-



tigara el genocidio y crímenes de lesa humanidad entre 1936 y 1977, ya que según el derecho internacional éstos no prescriben. A pesar de los requerimientos de la jueza de instrucción argentina, María Servini, ningún gobierno español ha colaborado en la tramitación de la misma.

### ***“La comisión Martxoak 31 Batzordea decidió por unanimidad presentar una querella ante el juzgado de Durango, contra los aviadores italianos que ejecutaron los bombardeos contra Durango”***

De esa manera, la querella argentina busca investigar la responsabilidad de los crímenes de lesa humanidad cometidos por ciudadanos españoles, que son a quienes amparan las leyes de amnistía. Paralelamente, la comisión Martxoak 31 Batzordea decidió por unanimidad presentar una querella ante el juzgado de Durango, contra los aviadores italianos que ejecutaron los bombardeos contra Durango los días 31 de marzo, 2 y 4 de abril de 1937. La alcaldesa Aitziber Irigoras interpuso la querella el 18 de julio de 2017.

La querella se basó en los datos recogidos por el historiador Jon Irazabal, de Gerediaga Elkartea. De una parte, se especificó que las fuerzas aéreas italianas dañaron el mismo 31 de marzo de 1937, como mínimo, once edificios y servicios municipales, entre otros:

las escuelas nacionales, el pórtico de Andra Mari, la casa consistorial, el matadero, el hospital civil, la plaza nueva del mercado, el alumbrado público y telefónico, el frontón de Ezkurdi, así como el pavimento y alcantarillado. De otra, se recogieron los datos identificativos de todos los componentes de l'Aviazione Legionaria del ejército italiano, bajo el mando del general Vincenzo Velardi (“Velani”), ejecutores de los bombardeos contra Durango en 1937. El resultado de la intervención fascista italiana fue “alrededor de 336 personas asesinadas, y un número no calculado de heridos con secuelas permanentes”.

El juzgado de Durango, sin embargo, decidió archivar la querella. La Audiencia Provincial de Bizkaia también estimó que los crímenes estaban “prescritos”.

***“El Estado cierra la puerta a la posibilidad de juzgar los crímenes de lesa humanidad contra la población civil de Durango, en lugar de permitir la verdad, justicia y reparación”***

El Ayuntamiento de Durango recurrió entonces, en amparo, al Tribunal Constitucional Español, quien también en mayo de 2019 ha declinado investigar a los criminales italianos. De esa manera, el Estado cierra la puerta, de nuevo, a la posibilidad de juzgar los crímenes de lesa humanidad contra la población civil de Durango, en lugar de permitir la verdad, justicia y reparación, así como garantías de que no lo volverán a repetir.



#### **KRONOLOGIA**

- 1937/03/31, 1937/04/02 eta 1937/04/04:** Bonbardaketak.
- 1937/04/28:** Faxistek Durango hartz zuten.
- 1969/04/01, 1976/07/30 eta 1977/01/11:** Estatuak bere buruari eman zizkion Amnistia Legeak.
- 2007/12/26:** Oroiaren Historikoari buruzko Legea onartu zuen Espainiako Parlamentuak.
- 2008/12/04:** Espainiako Auzitegi Nazionalak frankismoaren gizateriaren aurkako krimenak epaitzeko ezintasuna aldarrakatu zuen.
- 2010/04/14:** Frankismoaren gizateriaren aurkako krimenak ikertzeko kereila aurkeztu zen Argentinan.
- 2017/07/18:** Durangoko Udalak militar italiarren aurkako kereila herriko auzitegian aurkeztu zuen.
- 2018/03/20:** PSOEk, PPk eta Ciudadanos-ek 1977ko Amnistia Legea aldatzearen aurkako bota eman zuten, Espainiako Kongresuan.
- 2019/05/27:** Espainiako Konstituzio Auzitegiak ez zuen anparo errekuotsoa onartu. Espainiako bide judiziala agortuta dago.

<sup>1</sup> Durangoko epaitegian Kereila aurkeztu zen eguneko argazkia (2017-7-18)

# • Txotxe •


Jose Martin Urrutia Abio Elgoibarren jaio zen. Gazte heldu zen Durangoko Kurutziaga Ikastolara lanera, eta bertan bere antzerkiarekiko zaletasuna abian jarri zuen ikasleekin eta durangarrekin lan eginez.

Karrika Antzerki Taldea sortu eta bideratu zuen, taldeko zuzendaria, antzezlea eta gidoigilea izanik.

Durango 1936 Kultur Elkarteak eskatu zizkion guztietan bihotzetik erantzun zuen, bere grina, garra eta suhartasuna jarriz. Konpromiso gizona izan zen Txotxe. Zainetan zeroan gure herriak bizi izandakoaren kontakizun ahalik objektiboena belaunaldi berriei transmititzearen beharra, beti kaltetuen, suminduen eta baztertuen sufrimendua azaleratuz. Eta horien artean emakumearenak hartzen zuen ardatza bere lanetan.

Lurra astinduz antzezlana prestatu zuten Txotxek eta Karrikak Santista Anako plazan eskaintzeko. Ikuskizun horretan gerra-ostearen bizi izandako sufrimendua erakutsi zuten: gerrako haurrena, erbeste-ratuena, kartzelaratuena, errepresaliatuena... Ondoren, Izarrak marrazten antzezlana atondu zuten Kurutziagako Oroimen Guñean antzeztek. Ekitaldi horretan Lauaxeta euskal idazlea, Madrileko 13 larrosetako Julia Conesa eta Joseba Sarriñandiren arteko fikziozko elkarrizketa aukeratu zuten. Azkenik, Plateruenean Udaberririk ankerrena komikian oinarritutako ikuskizuna eskaini zuten.

Eskerrik asko Txotxe! Agurrik ez, gero arte!



# • Jaime •

Gurea lako elkarteko bidean egingo badu pertsonak behar ditu inguruan. Memoriaren sarea josten eta irudikatzen lagunduko duten pertsonak. Horietakoa zen Jaime Vicario Setien. Eskuzabala izan zen Jaime Durango 1936 elkartearrekin, eta eskuzabala izango zen, seguru asko, inguruan zuen jendearekin.

Zelako zura halako ezpala esan ohi da, eta Jaimeren etxean bazekiten eta badakite zapalkuntzak eragindako sufrimenduaren berri. Teresa Setien Piedra, Jaimeren ama, elkarritzetatu genuenean bidelagun izan genuen. Teresari Durangoko bombardaketan hil zioten aita, Jaimere aitita. Aitaren aldetik ere bazuen Jaimek faxismoaren kontrako borrokaren adibiderik.

Kartel bat edo bestelako krik egiteko irudirik eskatz geru, Jaime prest. Berea izan zen iazko "Agurrik gabeak" kartelekoea ere. Artista baitzen Jaime, baina ez margolaria eta marrazkilaria zelako bakarrik. Barrutik zerion argiagatik zen artista, mihise batean katigatzeko zalegia den argi horregatik.


Sarritan, sarriegitan, memoria historikoaz ari garela, laurogei eta gehiago urte atzera doakigu burua. Hizki larriz idatzitako gertakarietara, historiako liburueta jasotako egia edo gezur ofizialatera... Eta "atzo" ere bada memoria.

2019ko uztailean utzi gaitu Jaimek. Betirako gure memorian. Gure historiaren memorian.




# BENITA ETA EURIA

Marrazkiak: Alex Sanvi  
Gidoia: Unai Iturriaga



BENITA ETA EURIA









BENITA ETA EURIA







Durango 1936  
Kultur Elkartea

# Ahanzturaren kontra, memoria

•

Visítanos y alimenta la  
memoria histórica

**[www.durango1936.org](http://www.durango1936.org)**

